

Ebazpena: R030/2025

Espedientea: E071/2021

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 29a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa; horren helburua da zehaztea nork daukan eskumena XXXXXXXXXX1 establezimendu iraunkorrak (aurrerantzean, EI) 2014-2015 aldian TRANSPORTS SUDRE SAS XXXXXXXXXX1 enpresa nagusiari (aurrerantzean, Egoitza Nagusia) jasanarazitako BEZaren kuotak ordainarazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 71/2021 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- Frantziako TRANSPORTS SUDRE SAS entitatearen jarduera (egoitza nagusia: XXXXXXXXXX1) Espainia, Frantzia eta Belgikaren arteko errepidezko garraioa da. Beraren BEZ IFZ FRXXXXXXXXXXXX da, baina Espainiako Administrazioak emandako BEZ IFZ ere badauka: XXXXXXXXXX1.

2013ra arte eskumendeko enpresa bat zeukan Espainian, SUDRE IBERICA SL (XXXXXXXXXX1). Enpresa hori xurgatuta desegin zen.

Harrezkero, establezimendu iraunkor bat dauka Espainian, EI (XXXXXXXXXX1). Eskumendekoaren langileak eta ondasunak EI horri atxiki zitzaizkion: industria-pabiloia (XXXXXXXXXX 9, Irun), gasolio-biltegia (pabiloian), 13 trakzio-buru, 11 atoi, 3 turismo eta beste aktibo batzuk.

Elk Espainiatik Frantziarako garraioak egiten ditu, eta Egoitza Nagusiak Frantziatik Espainiarakoak (bai eta Bartzelonarekin lotutako guztiak ere, La Junquerako mugatik hurbil baitago).

2.-Elk GFARI soilik ordaintzen dio zerga, egoitza fiskala Gipuzkoan dagoelako eta (gatazkan aipatzen diren urteetan) eragiketa-bolumena 7.000.000 eurotik gorakoa izan ez delako.

3.- EIK hornitzaile nazionalen erosten die gasolioa, eta bidezko BEZa jasaten du. Gasolioa Bilbotik Irungo biltegiara eramaten du. Gasolioa bere trakzio-buruetan sartzen da, eta Irundera pasatzen diren Egoitza Nagusiarenetan ere bai (96 kamioi inguru).

4.- GFAREkin sinatutako APA baten bidez egituratu ziren Elren eta Egoitza Nagusiaren arteko harremanak, hari dagozkion mozkinak esleitzeko (Egoitza Nagusiaren jardura batzuetarako Elren langileak eta aktiboak erabiltzen dira, eta alderantziz).

5.- 2018ko abenduaren 31n, Elk, aurreko urteetan ez bezala, zenbait faktura egin zituen (bat hileko), eta haietan kontsumitutako gasolioaren BEZa Egoitza Nagusiari jasanarazi zion.

6.- 2018ko amaieran, Egoitza Nagusiak BEZa itzultzeko eskatu zion ZAEARI, BEZLaren 119. artikuluan egoitza gabekoez ezartzen dena aplikatuz.

2019ko apirilaren 12an, ZAEAk eskaera ezetsi zuen; izan ere, haren ustez, ez zen aplikatu behar BEZLaren 119. artikuluko prozedura, enpresak EI aktiboa zeukalako.

Erabaki haren kontra, berraztertze errekurtsoa aurkeztu zen. Errekurtso hura 2019ko uztailaren 31n ezetsi zen. Ez zen aurkeztu errekurtso ekonomiko-administratiborik.

7.- Elk Egoitza Nagusiari egindako fakturak baliogabetu zituen (enpresaburu lokabeak ez zirelakoan), eta, 2019ko ekainaren 6an, 2018ko BEZaren autolikidazioak zuzentzeko eskaera aurkeztu zion GFARI.

8.- 2019ko urriaren 1ean, GFAk ZAEARI eskatu zion aplika zezala Ekonomia Itunaren 47 ter artikuluko koordinazio-prozedura, zehazteko Elren eta Egoitza Nagusiaren arteko eragiketak BEZaren kargapean dauden ala ez eta Egoitza Nagusia Gipuzkoan ezarritako enpresa den BEZLaren 119. artikularen ondorioetarako.

ZAEAk adierazi zuen ez zela bidezkoa prozedura hori aplikatzea, eta bi arrazoi aipatu zituen: batetik, ezin zuen egiaztatu Egoitza Nagusia ikuskapenen bidez (itzulketa ukatzeak preklusioa eragiten du BEZLaren 119. arabera); bestetik, gaia ez da eragiketak «kalifikatzea».

9.- 2020ko maiatzaren 18an, GFAk bi akta zabaldu zizkion Elri, bata 2014-2017 aldiko urteetako BEZari buruzkoa eta bestea 2018ko BEZari buruzkoa.

Akta horietan erregularizatzen diren eragiketa nagusiak Egoitza Nagusiaren kamioientzako gasolioaren emateak dira, Elren jarduerarekin loturarik ez duten kontsumoak dira eta.

ZAEAREN ustez, eragiketa aktiboak egiten dituen EI bat egoteak eragotzi egiten du egoitzarik gabeko zergadunei BEZA itzultzeko prozedura (BEZAREN 119. artikuluan arautzen dena) aplikatzea. Izan ere, AEAZREN 2015eko maiatzaren 21eko ebazpenaren arabera, berdin da Elren eragiketek ez edukitzea loturarik Egoitza Nagusiak BEZA itzultzeko eskatzen duen eragiketekin. Horregatik, itzulketan kontuan eduki behar da Egoitza Nagusiak jasandako kuotak sartu behar direla Elren likidazioan.

GFAREN ustez, jarrera horrek bi arazo sortzen ditu: batetik, Egoitza Nagusiak jasandako kuotak Aldundiak egiaztatuko lituzke (eta inork ez du zalantzan jartzen horiek ikuskatzeko eskumena ZAEAK daukala), zeren eta jasandako BEZAREN kuota guztiak Elren aitorpenean ageri baitira (horren gaineko eskumena Aldundiak dauka); bestetik, paradoxa hau gertatuko litzateke: Egoitza Nagusiak EI gabe egindako eragiketetan hori ez da subjektu pasiboa (ez da egoiliarra), baina kuotak itzultzeko prozedurarako egoitza Gipuzkoan daukan entitatea da.

GFAK honako bereizketa hau egiten du Egoitza Nagusiak egiten dituen zerbitzuen artean: alde batetik, Espainiako enpresaburu diren bezeroei egiten dizkienak, Elk Egoitza Nagusiari azpikontratatzeko baitizkio horren baliabideak erabiltzeko (zergaren aplikazio-lurraldean egiten dira, BEZAREN 69.Bat.1 artikuluen arabera, eta subjektu pasiboa hartzailea da, BEZAREN 84.Bat.2 artikuluko inbertsioa aplikatuta); beste batetik, Elk parte hartu gabe Espainiakoak ez diren bezeroei egiten dizkienak (ez dira egiten zergaren aplikazio-lurraldean).

Horrenbestez, GFAREN iritziz, Egoitza Nagusiak Elk parte hartu gabe Espainiakoak ez diren bezeroei egiten dizkien eragiketetan Egoitza Nagusia ez

da subjektu pasiboa eta, beraz, ez da BEZa jasanarazten Espainiako lurraldearen barnean.

GFaren arabera, Ekonomia Itunak ez du banatzen egoitzarik ez duten eta subjektu pasibo ez diren enpresaburuek jasandako BEZa itzultzeko eskumena. Beraz, eskumen hori ZAEARI dagokio. Izan ere, Nafarroarekin egindako hitzarmenaren 33.10 artikuluan ZAEARI esleitzen zaio egoitzarik ez duten enpresaburuei BEZa ordainarazteko eskumena.

Horrenbestez, kontuan edukita Ekonomia Itunak ez duela esleitzen egoitzarik ez duten enpresaburuei BEZa ordainarazteko eskumena, GFaren ustez, ZAEAK itzulketa ukatzen badu, BEZLaren 119. artikuluko prozedura egokia ez dela eta, BEZaren neutraltasuna apurtuko litzateke egoitzarik ez daukan enpresaburuarentzat.

Auzitegi Gorenaren 2003ko apirilaren 11ko epaiaren arabera, barruko araudiak ezin du eragin neutraltasunaren printzipioa ez aplikatzea; beraz, GFAk aktetan bereganatzen du egoitzarik gabeko enpresak jasandako kuotak itzultzea, eta onartzen du Elren autolikidazioetan ageri direla eta ZAEAK konpentsatzeko eskubidea daukala.

10.- 2021eko ekainaren 14an, GFAk 2014-2018 aldiko BEZarengatik Elri egindako aktak bidali zizkion ZAEARI, akta bakarren trukean.

ZAEAREN ustez, Elk Egoitza Nagusiari egindako erregai-hornidurak ez dira BEZaren kargapeko ondasun-emateak, bi entitateak ez baitira subjektu ekonomiko lokabeak. Beraz, Egoitza Nagusiak ez du jasan BEZaren kuota kengarririk.

ZAEAk bere jarrera irmotu du, ikusirik Elren eta Egoitza Nagusiaren baliabideak eta langileak nahasten direla, bai aktetan, bai GFArekin sinatutako APAn, bai zergapekoak 2019ko ekainaren 6an bere autolikidazioak zuzendu zituenean egin zituen adierazpenetan.

11.- 2021eko abuztuaren 13an, ZAEAk GFari eskatu zion inhibitzeko Elri BEZa ordainarazteko eskumenean, hain zuzen ere 2014-2018 aldian Egoitza Nagusiak Elk parte hartu gabe Espainiakoak ez diren bezeroei egindako eragiketetan jasandako BEZa.

12.- 2021eko irailaren 8an, GFAk ezezkoa eman zion inhibizio-errekerimenduari.

13.- 2021eko urriaren 7an, ZAEAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen. Hori 71/2021 espediente-zenbakiarekin izapidetu da prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka honako gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen dizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion

zehazteko, sozietateen gainera zergaren edota balio erantsiaren gainera zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Zer den EI BEZaren ondorioetarako.

BEZLaren 69.Hiru artikuluan eta (EB) 282/2011 Erregelamenduaren 11. artikuluan ezartzen denaren arabera, zergaren aplikazio-lurraldean (ZAL) egoitza ez daukan entitate batek EI bat dauka bertan negozio-leku finkoa daukanean, jarduera ekonomikoaren egoitza ez beste bat, iraunkortasun nahikoa eta egitura egokia (langileak eta baliabide teknikoak) dauzkana, bere jardueretako batzuk (emateak edo zerbitzuak) autonomiarekin (hau da, eragiketen arrisku ekonomikoa bere gain hartuta) egiteko erabiltzen duena, Zergen Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko ekainaren 28ko eta 2017ko ekainaren 30eko kontsulta lotesleetan adierazten den bezala.

Establezimendu iraunkorraren kontzeptu hau EBren zuzenbidearen kontzeptua da, eta Batasuneko estatuek ezin dute horren interpretaziorik egin (Justizia Auzitegiaren epaiak: 1985eko uztailaren 4koa -gaia: 168/84-, 2003ko irailaren 22koa -gaia: C155/01- eta 2007ko ekainaren 28koa -gaia: C-73/06-); eginkizun hori Auzitegi Gorenak hartu du (2012ko urtarrilaren 23ko epaia, ECLI:ES:TS:2012:87).

Zehazki, Zergen Zuzendaritza Nagusiaren 2009ko urriaren 26ko kontsulta loteslean –2390/09 kontsulta– adierazten denez, EBko enpresa batek, errentari

gisa bada ere, zergaren aplikazio-lurraldean gasolio-biltegi bat badauka bere kamioiak hornitzeko, ulertzen da establezimendu iraunkor bat daukala lurralde horretan, eta ezingo du erabili BEZLaren 119. artikuluan BEZaren itzulketak lortzeko ezartzen den prozedura.

Ez ZAEAk ez GFAk ez dute zalantzan jartzen establezimendu iraunkorra dagoenik zergaren aplikazio-lurraldean. Beraz, ados daude honetan: establezimendu iraunkorrak bere gain hartzen du bere jardunaren ondoriozko arrisku ekonomikoa.

GFAk nabarmendu du establezimendu iraunkorra autonomia dela egoitza zentralarekiko, honako hauek argudiatuta, besteak beste: entitate bakoitza eremu geografiko batean dago, bakoitzak toki batean egiten ditu jarduerak, bakoitzak bere langileak eta baliabide materialak dauzka (hargatik eragotzi gabe beste alderdiarenak azpikontratatu ahal izatea eragiketa batzuetarako), bakoitzak bere IFZ dauka, bakoitzak bere eragiketak kontratatzen ditu, bakoitzak bere bezeroak kudeatzen ditu, eta administrazio desberdinek esleitzen zaie bakoitzari zergak ordainarazteko eta ikuskatzeko eta abarretarako eskumena.

ZAEA argudio horiek ezeztatzen mugatu da, alegatu baitu establezimendu iraunkorrak, 2019ko ekaineko autolikidazioak zuzentzean (ZAEAk BEZLaren 119. artikularen bidez itzultzea ukatu ondoren), adierazi zuela eragiketen arriskua Frantziako Egoitza Nagusiak hartzen duela bere gain.

Inguruabar guztiak batera aztertuta, Arbitraje Batzorde honek uste du ez dela behar beste hutsaldu establezimendu iraunkorrak bere jardueraren ondoriozko arrisku ekonomikoa bere gain hartzea, eta, beraz, uste du establezimendu iraunkorra Egoitza Nagusiarekiko subjektu independentea dela.

3.- Elri eta Egoitza Nagusiari egotz dakizkiekeen hirugarrenekiko eragiketak.

Bi subjektu desberdin daudenez, sukurtsalak BEZari dagozkion betebeharrak bete behar ditu (AEAZren 2020ko urtarrilaren 23ko ebazpena).

Horrek ez du esan nahi establezimendu iraunkorrari egotzi behar zaizkionik ez-egoiliarak zerga aplikatzeko lurraldean egiten dituen eragiketa guztiak; izan ere, Zergen Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko maiatzaren 7ko eta 2015eko azaroaren 19ko kontsulta lotesleek adierazten duten bezala, establezimendu iraunkor horren baliabide teknikoak eta giza baliabideak erabili behar dira establezimendu iraunkor horretan ondasunak emateko edo zergapeko zerbitzuak emateko eragiketak egiteko, emate edo prestazioen aurretik edo egin bitartean.

Ondorioz, onar daiteke, halaber, Egoitza Nagusiak eragiketak egiten dituela zerga aplikatzeko lurraldean establezimendu iraunkorrak parte hartu gabe (kasu horretan, ez da hori izango subjektu pasiboa), hargatik eragotzi gabe hura gauzatzeko bitartekoren bat azpikontratatu ahal izatea.

4.- Elren eta Egoitza Nagusiaren arteko eragiketak.

Hasiera batean, Zergen Zuzendaritza Nagusiak hauxe erabaki zuen 1987ko urtarrilaren 23ko kontsulta loteslean (2691/1986 kontsulta: Enpresa nagusi ingelesaren sukurtsalak, Espainiako penintsulan edo Balear Uharteetan kokatuta dagoenak, nortasun juridiko propiorik ez duenez, ez dela izango enpresa nagusitik bereizitako subjektu pasiboa. Nortasun juridiko propiorik gabeko Espainiako sukurtsalak bere etxe nagusiaren alde egindako ondasun-bidalketak eta zerbitzuak ez daude zergapetuta) eta 2003ko abenduaren 4an (2078/2003 kontsulta: Alemaniako enpresa nagusi baten sukurtsala, zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita dagoena, nortasun juridiko propiorik ez duenez, ez da izango enpresa nagusitik bereizitako subjektu pasiboa. Espainiako sukurtsalak bere etxe nagusiaren alde egindako zerbitzu-prestazioak ez dira zergaren mende egongo).

Izan ere, haren ustez, ez daude zergaren kargapean Espainiako sukurtsal batek bere etxe nagusiaren alde egindako ondasun-bidalketa eta emandako zerbitzuak.

Ondoren, Europako Justizia Auzitegiaren 2006ko martxoaren 23ko epaian (C-2010/04 auzia), finantza-entitate baten egoitza nagusiaren (banku-lizentzia bakarraren ondoriozko berezitasunekin) eta beste estatu kide (EK) bateko establezimendu iraunkorraren arteko eragiketak BEZaren kargapean dauden ebazteko orduan, ez da sukurtsalak nortasun juridiko propiorik ez izatearen egitate eztaba daezinean geratzen; aitzitik, egiten duen jarduera ekonomikoaren ezaugarrietan sakontzen du, jakiteko bere arrisku ekonomikoa bere gain hartzen duen eta modu independentean jarduten duen. Bada, gatazka eragin duen kasuan, erabaki zen establezimendu iraunkorrak ez zuela bere gain hartzen bere jardueraren ondoriozko arriskua, bereziki kreditu-arriskua, eta, beraz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak erabaki zuen Egoitza Zentralaren eta establezimendu iraunkorraren arteko eragiketak enpresaburu berak egindako barne-eragiketak zirela, eta, beraz, erabaki zuen ez zeudela BEZaren kargapean.

Hala ere, AEAZren 2020ko urtarrilaren 23ko Ebazpenak, Egoitza Nagusiaren eta Elren arteko eragiketetan –zeina desagertzen den alde z aurreko filial baten jardueran subrogatu baitzen– aseguru-jarduerari buruzkoa baitzen, egiaztatu ondoren Elk bazituela bere baliabide propioekin bere jardueratik eratorritako kontingentziei aurre egiteko behar ziren erreserba tekniko eta operazionalak, ondorioztatu zuen subjektu bereiziak zirela BEZaren ondorioetarako.

Ildo horretan aurrera eginda, EBJAren 2014ko irailaren 17ko epaiak (C-7/13 auzia) adierazi zuen hirugarren herrialde batean kokatutako establezimendu nagusi batek estatu kide batean ezarritako sukurtsalari emandako zerbitzuak zergapetutako eragiketak direla, azken hori BEZaren ondorioetarako subjektu

pasibo bakartzat har daitekeen pertsona-talde bateko kidea denean, entiate-taldearen araubide berezia aplikatzea erabaki dutelako.

Kasu honetan, establezimendu iraunkorrak bere jardueraren arrisku ekonomikoa bere gain hartzen duela behar bezala frogatutzat jo dugunez, Egoitza Nagusiari egiten dizkion salmentek –ezarri gabeko subjektua– BEZaren kargapean egon behar dute.

5.- Egoitza Nagusira itzultzeko prozedura.

AEAZren 2007ko irailaren 12ko ebazpenak eta EBJAren 2016ko ekainaren 21eko epaiak (C-393/15 auzia) ildo beretik adierazten dute ezin dela itzulketa-prozedura berezia aplikatu BEZLaren 119. artikuluan egoiliarra ez den entitateak establezimendu iraunkor bat duenean zergaren kargapeko eragiketak egiten dituen zergaren aplikazio-lurraldean.

AEAZren 2015eko maiatzaren 21eko ebazpenak ezartzen duenez, Europar Batasuneko arauak ez du ezartzen establezimendu iraunkorrak itzulketa eskatzen den eragiketei lotutako eragiketarik egin ez duenik, baizik eta eragiketa orokorrik egin ez denik. Beraz, ezinbestekoa da establezimendu iraunkorrak inolako eragiketarik ez egitea; izan ere, eginez gero, BEZaren autolikidazioak aurkeztu beharko lituzke, kasuan kasuko estatu kideko zergapeko nazionalen baldintza berberetan, eta bertan sartu beharko lituzke itzulketa eskatzen deneko Egoitza Nagusiak jasandako kuotak.

GFAk adierazten duen problematikari dagokionez, hau da, Egoitza Nagusia ez dagoela ezarrita BEZean eragiketak egiteko, baina bai itzulketa-prozedura aplikatzeko, adierazi behar da BEZLan jasotzen den ezarritakoaren kontzeptua ez datorrela bat jasandako BEZa berreskuratzeko erabilitakoarekin. Ondorio horietarako ezarri gabekoaren kontzeptua ez dator bat subjektu pasiboaren

kasurako ezartzen denarekin (BEZL, 84.2). Azken kasu horretan, Espainiako zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita egotea edo ez egotea eragiketa bakoitzaren arabera definitzen da; beraz, Espainiako BEZa aplikatzen den lurraldean establezimendu iraunkor bat duen enpresaburu bat, lurralde horretan BEZaren kargapeko eragiketa bat egiten duena (adibidez, N urteko lehen hiruhilekoan), eragiketa horri dagokionez ezarritzat jotzen da. Enpresaburu horrek berak hiruhileko horretan bertan egiten badu Espainiako BEZaren kargapeko eragiketa bat Penintsulatik eta Balear Uharteetatik kanpo kokatutako establezimendu iraunkor batetik, ezarri gabetzat joko da eragiketa horri dagokionez, Espainiako BEZaren ondorioetarako.

Aldiz, itzulketen erregularizazioan aurreko enpresaria, Espainiako BEZa aplikatzen den lurraldean establezimendu iraunkorra ezarri den N. urteko lehen hiruhilekoan eragiketa bat egin duenez (ondasuna edo zerbitzua eman), bertan ezarrita dago, eta hiruhilekoan jasandako Espainiako BEZa berrekuratu behar du kenkarien ohiko bidea erabiliz.

Azken batean, kasu batean ezarritako kontzeptuak subjektu pasiboa zehazteko balio du, eta, beste batean, enpresaburuak aurreikusitako itzulketen prozedura berezia aplika dezakeen ala ez zehazteko. Enpresaburu bat ez badago ezarrita, ezin du itzulketen prozedura erabili jasandako BEZa berreskuratzeke, eta, kasu horretan, zerga hori berreskuratzeke kenkarien prozedura orokorra erabil dezakeela ulertu behar da.

6.- Ezarri gabekoari zerga ordainarazteko eskumena.

ZAEAk aitortzen du ezarri gabeko ez-egoiliarrari zerga ordainarazteko eskumena dagokiola, eta, beraz, ez dela beharrezkoa Itunaren interpretazio integratzailea egitea Nafarroarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren arauetara joz.

7.- BEZaren neutraltasuna.

Kasu horri ez-egoiliarrei itzultzeko prozedura berezia aplikatu ezin zaiola ezartzen duen barne-araudi bat egotea (BEZL, 119. artikulua), ordainarazteko (kasu honetan, itzultzeko) eskumena duen Administrazioaren (estatukoa) aurrean artikulatzea ekarriko lukeena, eta, beraz, beste itzultze-prozedura bat antolatzea behartuko lukeena (BEZL, 115. art.) beste administrazio baten aurrean (forala), zergaren neutraltasunaren mesedetan, GFAk itzulketa bere gain hartzea dakar, eta horrek ez du inolako aldaketarik eragingo ezarri gabeko ez-egoiliarraren ordainarazpenari buruzko eskumen-arauetan.

8.- Kuoten kalkuluari buruzko informazioa.

ZAEAk alegatu du establezimendu iraunkorrak Egoitza Nagusiari jasanarazitako kuoten kalkulu globala ez dela zuzena, baina gai hori Arbitraje Batzordearen eskumenetatik kanpo dago.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea ZAEAk itzuli egin behar dituela Elk 2014 - 2018 aldiko urteetan Egoitza Nagusiari jasanarazitako BEZaren kuotak.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta TRANSPORTS SUDRE SASen establezimendu iraunkorrari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.